



BALDINTZAK

Agindu honetako deialdian jasotzen diren plazetako bat lortu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Aurreko ikasturtean 6 puntuko gutxieneko nota lortu behar da eskatutako hizkuntzan/hizkuntzatan, eta 15 puntuko edo gehiagoko puntuazio osoa lortu behar da aurreko ikasturteko batez besteko notaren eta eskatutako hizkuntzako notaren arteko baturan.

b) Eskatzen den plazari dagokion edo dagozkion hizkuntzak ikasiak izan behar ditu eskaera-dataren aurreko bi urteetan, eta ikasketa horrek, azken urtean, funts publikoen bidez finantzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean egina izan behar du.

c) Epe-barruan egin behar du plaza atxikitzen den tarteari dagokion diru-ekarpena.

d) Ez du aurreko urteren batean atzerrian hizkuntza bat ikasteko Hezkuntza, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailak deitu dituen deialdietan plazarik eskuratua izan behar. Horren salbuespen izango dira plaza matematika-olinpiadetan eskuratu duten ikasleak.

e) Beranduenez 2012an bete behar dituzte 19 urte.

f) Pertsonak ezin izango dute parte hartu agindu honen bidez araututako laguntza publikoaren deialdian, ezarri zaien zigorrak ezartzen duen aldian, baldin eta zigor-arloko zehapena edo administrazio-zehapena dela-eta diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko eskubidea galdu badute edo horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean badaude, sexu-diskriminazioagatik eragindakoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 2005/18 Legearen arabera.